



BARREN
TOKIKOM



**Kale gehiago
igerian egiteko**

LAN-DEIALDIA

Elgoibarko Izarrak Atxutxiamaiarako aisia hezitzaileko koordinatzailea behar du aldi baterako.

LANPOSTUAREN EZAUGARRIAK:

- Aldenik-alden programa koordinatzea (9-12 urteko umeen hizkuntza ohituretan eta euskararen erabileran eragiteko egitasmoa).
- Berbazulo koordinatzea (etorri berrientzat euskara errefortzu programa).
- Aisia hezitzaileko ekintzak aurrera eramatea (udalekuak eta abar).

ESKATZEN DA:

- Begirale titulua izatea.
- Aisia hezitzailean lan eskarmentua izatea.
- Euskara maila handia izatea, ahoz eta idatziz.

ESKAINTZEN DA:

- Jardun osoko ordezkapen kontratua.
- Formatzeko aukera.

BALORATUKO DA:

- Pedagogia aktiboetan esperientzia edota formazioa izatea (Baso-eskola, Pedagogia berdea, Montessori, Waldorf, etab.).
- Garapen pertsonalerako bestelako gaitasunak nahiz praktikak (adimen emozionalaren inguruko ezagutza, disziplina positiboa, entzute aktiboa, komunikazio ez-bortitza, ...).
- Parte-hartzea, hezkidetzak edota inklusioaren inguruko ezagutza izatea.
- Soziolinguistika ezagutzak izatea (hizkuntza aniztasuna, motibazio saioak, ...).
- Lan taldeak koordinatzen esperientzia izatea.
- Naturaren inguruko ezagutza edota sentsibilitatea izatea.
- Informatika eta teknologia berrien gaineko ezagutza izatea.
- Psikopedagogia, Pedagogia edo Gizarte Zientzietako antzeko titulazioa izatea.
- Euskalgintzan jardun izana.
- Elgoibarkoa edo ingurukoa izatea.
- Malgutasuna izatea, egutegi eta ordutegiari dagokionez.
- Gidabaimena eta kotxea izatea.



CURRICULUMAK BIDALTZEKO EPEA:

Irailak 9, osteguna

kudeaketa@elgoibarkoizarra.eus

Informazio gehiago:

+ 943 741 626

+ 643 499 169

(Amalia Lasagabaster)

Katamixarren
basoa

naturan
hazi eta
hezteko
gunea

Irailaren 8an atek irekitzeko eguna izango dugu Katamixarren basoan, Txillarre baserriko lurretan. Lantaldea, espazioa, lan metodologia... ezagutzeko aukera izango duzue bertan.

Egungo egoera dela-eta bi txanda izango dira:

16:30 - 17:30 (1.TXANDA) - 18:00-19:00 (2.TXANDA)

Asistentzia konfirmatzeko idatzi helbide honetara: aisia@elgoibarkoizarra.eus. Bertan zenbat pertsona etorriko zareten eta zein txandatan etorriko zareten zehaztu.

Mokoroa baserriko (Sallobente) bidegurutzean elkartuko gara.



ANE KORTABERRIA

Ikasle ekintzailea



Egingo banu, egingo banu... Hain arriskutsua al da probatzea?

gure begirada etorkizunean jartztea.

Bihar etxean konfinatuta egon gaitzke, uholde batek etxebizitzarik gabe utzi gaitzake edo bizitzako gure azken eguna izan daiteke. Telebista pizten dugunean ere albisteen %90 txarrak izaten dira eta honekin gehienetan aldaketa hitzari kutsu negatiboa ematen diogu. Askotan hala izaten da bai, baina aldaketak positiboak ere izan daitezke.

Honen harira, konfort egoeratik aterata behar garela entzuten da sarri. Ni ere ados nago horrekin, baina argi dago ez dela batere erraza.

Gainera, onartzea gustatzen ez zai-

gun arren, aldaketei aurrez aurre egiten ohitu behar gara, eta posible den heinean, aprobetxatzea. Hala ere, arrazoi duzue: oso erraza da esatea eta ez hainbeste ekitea.

Beldurrak, ezjakintasunak, kontrol faltak... blokeatzen gaitu maiz eta ez da batere erraza horri buelta ematea. Argi dugu honek ez digula mesederik egiten, baina hain da zaila automatikoki egiten ditugun ekintzak aldatzea...

Mr Wonderfulek testu ñoñoetako bat dirudi honek, baina berdin zait, bakoitzak nahi duen moduan interpretatu dezake. Bizi dezagun momentua eta 'X gauza egingo banu...' gure egiteko zerrendatik borratu.

"Beldurrak, ezjakintasunak, kontrol faltak... blokeatzen gaitu maiz, eta ez da batere erraza horri buelta ematea"



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
Sustutzearen Topagunea

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

barren@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskutitzak ataletan adierazitako erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zalaa Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor lauzirika **ADMINISTRARIA** Amaia Arrizabalaga **KOLABORATZAILEAK** Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Enetz Ezenarro, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldeggi, Jone Olaizola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Sara Iriondo, Asier Guisasaola **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia

BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► MILA ESKER

Maria Etxaberen senideon partez, gure eskerrik beroena San Lazaro egoitzako lantalde osoari, eskainitako arretagatik. Mila esker, bihotzez, horren goxo hartzeagatik.

I.G.E.

► KULTURAREN GARRANTZIA

Historikoki, kultura edozein gizarteren garapenerako ezinbestekoa dela ondorioztatu da. Nork ez du faltan botatzen kontzertu, antzerki edo arte erakusketaren bat azken bolada honetan?. Zorionez, Elgoibarren dauden kulturagileak asko dira eta beraien eskaintza oparoa izan arren, kasu batzuetan ez da behar bezala kaleratzen. Kultur Kafearen esleipena aukera paregabea iruditu zitzaidan herri honetan kultur

alorrean nik sumatu ditudan gabeziei erantzuna emateko eta herritarrei espazio berri bat eskaintzeko. Horiek izan ziren proiektu honetara aurkeztera bultzatu ninduten arrazoi nagusienak. Kulturak alor desberdinak hartzen ditu bere baitan, besteak beste, antzerkia, musika, literatura, hitzaldiak, tailerrak... Alde horretatik interesgarriak izan zitezkeen aukera desberdinen azterketa egin nahi izan nuen Kultur Kafearako nire proposamena garatzeko orduan. Ilusioz hasi nuen proiektu honen garapena, pentsatzen bainuen (agian inozenteki), Kultur Kafea ez zela negozio huts bat eta proposamenak aztertzerako orduan Udalaren erabakian kultura proposamenak pisu handiagoa izango zuela. Ez nuen Udalaren gutxiengo eskaintza gehitu nahi izan, argi neukalako nire helburua edo niretzako ga-

rrantzitsuena kultur proiektua zela.

Ibilbide guzti honetan asko ikasi dut, bai pertsonalki eta baita erakundeen funtzionamenduari buruz ere. Argi gelditu zait herritar bezala erakundeekin izan beharreko distantzia murriztu beharra dagoela, zein urrun gelditzen diren herriko kargu publikoak edo kargu politikoak... Gainditu beharreko burokrasia astunegia izanik, gauzak aldatzeko edozein herritarrek izan ditzakeen nahiak itzali daitezke. Hala ere, nahiz eta Kultur Kafearen esleipena irabazi ez, itxaropena daukat irabazle izan denak herri honetan dagoen kultur beharren kontzientzia izan eta esparru honetan bultzada bat emateko borondatea izango duela, beti ere Elgoibarren dauden artista eta kulturagile ugariak kontuan hartuz.

Nagore Cid



Angel Villena Monsalve

2021eko abuztuaren 23an hil zen, 83 urte zituela.

Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Beti gogoratuko zaitugu zinen bezain umil,
zintzo, langile eta eskuzabal.***

Bizirik jarraituko duzu betiko guban.

Etxekoak

Udako aisia eskaintza "arrakastatsua" izan dela adierazi dute arduradunek

Udal Ludoteka eta Gaztelekua kudeatzen dituen Zehar, Heziketa eta Programak elkarteko arduradunek eta Atxutximaikako ki-deek udako aisia eskaintzaren balorazioa egin dute, eta udaldia "arrakastatsua" izan dela adierazi dute. Datuei erreparatuz, udako haurrentzako aisia eskaintzan, Ludotekak eta Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topaguneako Atxutxiamaiak elkarlanean antolatzen dutena, 245 haurrek parte hartu dute, adin tarte bakoitzari egokitutako programazioarekin, eta Gaztelekutik antolatzen duten nerabeentzako aisia eskaintzan 230 nerabek parte hartu dute.

Ikasturte berria, irailaren 6an

Ludotekak eta Gaztelekuak datorren astelehenean ekingo dio ikasturte berriari. Ludotekak honako txanda eta ordutegiak izango ditu:

- HH5-LH1 astelehenetan eta eguaztenez 16:30etik 19:00etara.
- LH2-LH3: martitzen eta eguenetan, 16:30etik 19:00etara.
- LH4-LH6: barikuetan, 16:30etik 19:00etara.

Ludotekan parte hartzeko izena eman behar da: 943 748 883 / ludotekaelgoibar@gmail.com

Gaztelekuak, berriz, nerabeekin planak egingo ditu lehen bi asteetan. eta irailaren 22tik aurrera, ohiko ordutegia izango du:



- Eguazten, eguen eta domeketan: 17:00etatik 20:00etara.
 - Bariku eta zapatuetan 17:00etatik 21:00etara.
- Gaztelekuan parte hartzeko ere eman behar da izena: 943 743 228



Maria Luisa Urrutia Etxabe

"Martinaundi"

2021eko uztailaren 17an hil zen, Iruñean. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta Iruñera etorri izana ere. Haren oroimenezko meza domekan, irailaren 5ean, izango da, 11:30ean, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi aldeztatik eskerrak.



Isidoro Muguerza San Martin

2021eko abuztuaren 19an hil zen, 94 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

**Gure ondotik joan zara,
baina betiko izango zaitugu
gure bihotzetan**

Zure familia



Irailarekin batera hasiko ditu berriz Gaurgeroa-Duintasunak murrizketen kontrako mobilizazioak

Udako etenaren ostean, astelehenean itzuliko dira plazara Gaurgeroa-Duintasuna taldeko kideak, murrizketen kontra protesta egiteko. Elkarretaratzea egingo dute astelehenean, 19:00etan, Kalegoen plazan, eta irailaren 20rako, berriz, manifestazioa antolatu dute. Toledoko Itunak proposatzen dituen murrizketekin eta lan erreformaren aldatetekin etorkizuna beltz ikusten dute, eta kezka sortzen die baita ere zaharren egoitzetan Covid 19-a izaten ari den eragina. Gasaren, argiaren eta beste hainbat oinarriko baliabideen garestitzeak pentsio apalak dituztenengan izango dituen ondorioak ere kezkarriak direla adierazi dute. Era berean, osasun zerbitzuak orokorrean eta Elgoibarren bertan izan dituen murrizketekin ere kritiko agertu dira, eta gogoratu dute uztailearen 2an bete zirela bi urte anbulategiko larrialdi zerbitzua kendu zutenetik. Horregatik guztiagatik borrokan segitu behar dutela uste dute. Euren ekimena hasi zutenetik hainbat gauza lortu badira ere, 1.080 euroko gutxieneko pentsioa eta %100eko alarguntasun pentsioa aldarrikatzen jarraituko dute.

'Katamixarren basoa' ezagutzeko atek irekitzeko eguna antolatu dute hilaren 8rako



Atxixiamaikak eta Txillarre baserriak elkarlanean antolatu duten *Katamixarren basoa* ezagutzeko aukera egongo da eguaztenean, hilaren 8an. Bi txanda jarri dituzte aukeran: lehenengoa, 16:30etik 17:30era, eta bigarrena, 18:00etatik 19:00etara. Lantaldea, espazioa, lan metodologia... ezagutzeko aukera izango dute ume zein gurasoek. Mokoroa baserri pareko bidegurutzean elkartuko dira, eta handik oinez egingo dute basorako bidea. Antolatzaileek asistentzia konfirmatzeko eskatu dute, aisia@elgoibarkoizarra.eus helbidera idatzita.

Maiatzetik itxita egon ondoren, abuztuan zabaldu zuten berriz Aita Agirre Kultur Kafea

Maiatzean itxi zuten Aita Agirre Kultur Kafea, baina abuztuaren erdialdetik martxan da berriz. Hiru eskaintza jaso zituen Elgoibarko Udalak Kultur Kafea ustiatzeko lizitazio prozesuan, eta Joseba Quintas Romerok aurkeztutakoa aukeratu dute. Bi urterako kontratua izango da, eta epe hori bete ostean beste bi urtez luzatzeko aukera egongo da. Kudeatzaileak Udalarari ordaindu beharko dion urteko kanona 6.600 eurokoa izango da (BEZ gabe). Quintasek anoez, pizzez, ogitartekoez, hamburgersez... osaturiko janari-karta prestatu du, eta horrez gain, enkarguzko menuak, egunerokoak edota asteburuetakoak eskainiko ditu, baita ekitaldi eta festetarako menu bereziak eta etxera eramateko janaria ere.


Lehenengo ekintza, Trivial txapelketa

Kultur Kafea den heinean, kultur jarduera sustatzea du helburu. Horretarako, hilean bi kultur jarduera antolatzea aurreikusitako du, baina momentuz, Covid 19-aren pandemiaren ondorioz, hilean ekitaldi bat antolatzen hasiko da. Irailerako Trivial txapelketa antolatu du. Bi-lau pertsonako sei taldek parte



hartu ahal izango dute. Talde bakoitzak 10 euro ordaindu beharko ditu eta irabazleak batutako dirua, edari bat eta bi anoa jasoko ditu sarizat. Euskaraz eta gaztelaniaz jokatzeko aukera egongo da. Euskarazko saioa hilaren 17an egingo dute, 18:30etik aurrera, eta hurrengo egunean egingo dute gaztelaniazko saioa, ordu berean. Interesatuek tabernan bertan eman beharko dute izena.

Iazko prebentzio neurriak hartuta hasiko da aurtengo ikasturtea



COVID-19aren hedapena eteteko hartutako neurriak malgutu zituen astelehenean Eusko Jaurlaritzak, eta eguaztenetik indarrean daude. Goizone Sagardui Osasun sailburuak esan zuen joera aldaketa "argia" dela, baina hala ere, prebentzio neurriek eusteko eskatu zuen, datozen asteak bosgarren olatua menderatzeko aste erabakigarriak izango direla arrazoituta. Malgutzera edukiera kontutan etorri da batez ere. Orokorrean, lokal eta instalazio guztien edukiera handitu da, %60ra. Dena den, badaude salbuespenak. Taberna eta jatetxeetan, esaterako, barruko edukiera %50ekoa da eguaztenez geroztik. Kultura eta kirol ekitaldietan, bestalde, gehienez 600 lagun elkartu ahal izango dira, ekintzak barruan diren kasuetan: Kanpoan baldin badira, gehienez 800 lagun hartu ahal izango dituzte. Hala ere, lokal handietan, 1.600 eta 5.000 pertsona artean sar daitezkeen lekuetan, 800 pertsonaraino sartzeko aukera eman dute, eta aire zabalean, 1.200 lagun. 5.000 lagun baino gehiago sar daitezkeen lekuetan, futbol-zelaietan esate baterako, gehieneko edukiera %30ekoa izango da.

Ikasturte berriaz ere jardun zen Osasun sailburua. Goiztiarrenak irailaren 8an itzuliko dira eskolara gurean, eta joan zen ikasturteko prebentzio neurri nagusiak bete beharko dituzte. Hau da, maskara jantzi beharko dute 6 urtez gorakoek, metro eta erdiko segurtasun tartea mantendu beharko dute... Hori bai, txertoaren pautara osoa hartuta duten ikasleek ez dute berrogeialdirik egin beharko, positibo baten kontaktu zuzena izanda ere. Era berean, barnetegiak antolatuta ahal izango dira aurtengo eta eskolaz kanpoko jarduerari ere bide emango zaio, ahal den neurrian, eskolako "bizikidetzat talde iraunkorrak" mantenduta.

Elgoibar, eremu laranjan

Datuak hobera egin dute oro har, baina ez Elgoibarren. Astelehenean eremu gorrian sartu zen, eta eguaztenean, 372,62ko intzidentzia-tasa geneukan. Abuztuan, guztira, 84 kasu positibo izan dira. Egoera hobea dute Mendaron. Abuztu osoan, 11 kasu izan dituzte, eta eguaztenean, 189,13ko intzidentzia-tasa zuten.

Zoladura berrituko dute San Roke eta Trenbide kaleetan

Herriguneko irisgarritasuna hobetzeko proiektuaren barruan, San Roke kaleko 26. zenbakitik Juan Mugertza kaleko 3. zenbakirako bide zatian zoladura jarriko dute, bai eta Trenbide kaleko espaloian ere, zehazki San Inazio kaleko 4. zenbakitik Ubitarte kaleko 3. zenbaki parera arteko zatian. 134.451 euroko aurrekontua izango dute lanok (BEZ barne). Zoladura jarriko duten guñe horietan espaloiak zabalduko dituztela jakinarazi dute Udaletik.



Etxebizitzetan hobekuntza lanak egiteko dirulaguntzak, Mendaron

Etxebizitza eraikinetan hobekuntza lanak egitera bideratutako 37.500 euroko dirulaguntza lerroa zabaldu du Mendaroko Udalak, EH Bilduk proposatuta. Eskera egiteko epea zabalik dago dagoeneko, eta Udalaren web orrian (www.mendaro.eus) kontsulta daitezke deialdiaren oinarriak. 2021. urtean egindako lanak ez ezik, 2020an egindakoak ere lagunduko dituzte dituzte.

Odol ateratzeak gaur, Elgoibarren

Odol ateratzeak egingo dituzte gaur Elgoibarren, 16:30etik 20:10era, Jubilatuen Egoitzan. Ordua hartu beharko da, 623 328 408 whatsappera idatzita, (15:00etatik atzera).



Igerileku berria prest

Iraila hastearekin batera, Olaizaga kiroldegiak igerileku berria estreinatu du. 25 metro luze eta 16,5 metro ditu zabaleran, eta guztira zortzi kale. Igerilekuaz gain, eraikina bera ere berritu dute, eta aldagelak, botikina eta aparkalekuan ere hobekuntza lanak egin dituzte. Igerileku berriari esker, Olaizaga kiroldegia eskaintza hobetu dute, eta berrikuntzekin dator ikasturtea. Elgoibarko Udalak 3.221.594,29 euroko inbertsioa egin du obra honetan.

- AINHOA ANDONEGI -

Olaizagako igerilekuko lanak amaitu dituzte, eta eguaztenetik erabilgarri dago igerileku berria. Igerileku zaharra txiki geratu zela-eta, joan zen legealdian hartu zuen Udalak igerileku berria egiteko erabakia, eta 3.221.594,29 euroko inbertsioa egin du (BEZ aparte). Igerileku berriak 25 metro ditu luzeran eta 16,50 metro zabaleran. Bi metroko zortzi kale ditu, eta gutxi gorabehera 450 m²-ko ur geruza. Igerilekuaz gain, Udalak eraikin berriaren inguruko instalakuntzak hobetzeko lanak ere egin ditu, egungo espazioa eraberrituz eta handituz: orain arteko bi aldagelak berritu eta handitu dituzte, eta horrekin batera, beste bi aldagela, aldagela egokituak, komunak eta botikina ere egin dituzte. Hala ere, berrikuntzak ez dira izan eraikinaren barrualdean bakarrik, eta inguru ere berrantolatu dute. Igerilekuaren teilatuan 42

plazako aparkalekua sortu dute, ezgaitasuna duten pertsonentzako bi plazarekin. Olaizagako instalazioetan egindako obrari esker kiroldegiko hainbat espazio berrantolatu dituzte: squashe-rako kantxa eta pilotaleku txikia margotu egin dituzte, eta kantxa ondoko muskulazio gela taberna ondoko aretora lekualdatu dute.

IKASTARO BERRIAK

Ur jardueren atalean bederatzik ikastaro eskainiko dituzte, eta horietatik bi berriak izango dira: jaioberrientzako igeriketa saioak eta lesioak uretan osatzekoa. Egindako handitze lanei esker, momentu berean lau talderi saioak emateko aukera izango da. Horretarako, bi igerileku handietako alboetako lau kaleak erabiliko dituzte. Manopla, aleta edo bestelako materialen bat erabili nahi



Igeriketa taldeko masterrek udal agintariekin eta Kirol Patronatuko arduradunekin bisitatu zuten igerilekua.

dutenek igerileku zaharreko hirugarren kalea erabili ahal izango dute. Ikastaroekin jarraituz, igerileku txikia ere erabiliko dute jaioberrien ikastaroetarako, lesioen berregokitze ikastaroetarako, sardina txikien talderako eta aquaerobikerako. Horretarako, martitzen eta eguenetan, igerileku txikiko tenperatura 31 gradura igoko da.

HERRITARREI EGOKITUTAKOAK

Elgoibarko alkate Ane Beitiak adierazi duenez, "herritarren beharrei egokitutako" igerileku berria du Elgoibarrek orain. "Elgoibarrek behar dituen azpiegiturak eskaintzea izan da hasieratik Udal gobernuaren helburua, herritarren ongizatea dugu ardatz. Hasieratik ikusi genuen igerileku handiago baten beharra, eta emandako hitza bete dugu. Gabeziari soluzioa eman eta Elgoibarrek duen kirol eskaintza hobetzeko igerileku berria eraiki dugu, egungo eskari, irisgarritasun, kirol, genero eta abarretako esparruetan dauden arauetara egokituta".



Igerilekuaren goiko aldean balioanitzeko gela bat egin dute.

IKASTAROAK

Igerileku berria lehengoaren osagarri izango da, eta horri esker, Olazaiga kiroldegia kirol jarduera eta ikastaro berriak eskainiko ditu. Lehendik zegoen eskaintzari, jaioberrientzako igeriketa ikastaroa, lesioen berregokitzea uretan eta entrenamendu personalizatuak gehitu zaizkio. Izena emateko epea irailaren 8an amaituko da, eta ikastaroak irailaren 15etik aurrera hasiko dira, 60 urtetik gorakoentzako saioak izan ezik, horiek hilaren 1etik martxan baitaude. Ikastaroetan izena emateko edo informazio gehiago eskuratzeko 943 744 415 telefonora deitu behar da.

KIROLDEGIKO ORDUTEGIA

Astelehenetik barikura: 07:00etatik 21:30era
Zapatuetan: 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara
Domeketan: 09:00etatik 13:30era.

4 HILABETEKO ABONUA (iraila – abendua 2021)

| | |
|---------------------|----------|
| Banakakoa -18 | 74,75 € |
| Banakakoa +18 | 95 € |
| Familiarra | 171 € |
| Jubilatua +60 | 82,50 € |
| Jubilatu familiarra | 143,25 € |
| Ikaslea | 78,25 € |
| Behar bereziak | 67,25 € |

UR JARDUERAK



| UR JARDUERAK | BAZKIDEAK | EZ BAZKIDEAK |
|---------------------------------------|-----------|--------------|
| Jaioberrien igeriketa (berria) | 40 € | 50 € |
| Haurren igeriketa | 40 € | 50 € |
| Igeriketa eskola | 32 € | --- |
| Behar berezien igeriketa | 31,25 € | 36,25 € |
| Helduen igeriketa (hastapena) | 50 € | 66 € |
| Helduen igeriketa (hobekuntza) | 50 € | 66 € |
| Masterrak | 40 € | 53,75 € |
| Lesioen berregokitzea uretan (berria) | 22,50 € | 32,50 € |
| Aquaerobik | 33 € | 44,50 € |

ARETOKO JARDUERAK



| ARETOKO JARDUERAK | ASTEKO EGUNAK |
|-------------------|--------------------------------------|
| Pilates | Astearte/Ostegun |
| Yoga | Astearte/Ostegun |
| K-Stretch | Astelehen/Asteazken/Ostegun/Ostiral |
| Krosfit | Astelehen/Asteazken |
| Zumba | Astelehen/Astearte/Asteazken/Ostegun |
| Zumba gazteak | Astearte/Ostegun |
| Spinning | Egunero |
| GAP | Astearte/Ostegun |
| Aerobik | Astelehen/Asteazken/Ostiral |
| TRX | Astearte/Ostegun |
| Elgoibar sasoian | Astelehen/Asteazken |
| 60 + spinning | Astelehena |



Aldagela berriak eta komunak egin dituzte. Lehengo igerilekuko hormatik zabaldu dute igerileku berriko pasabidea.

▶ **EDU IBARTZABAL**
SLACKLINE ZALEA



“Kirol olinpikoa izatera iritsiko da slackline-a”

San Rokeko ermita aurreko berdegunean aurkitu du paradisuia Edu Ibartzabalek (Elgoibar, 1992). Pontevedran (Galizia) egin ditu IVEF ikasketak eta han bizi da. Estibadore lanetan aritzen da, itsasontzietan zamalanak egiten, eta lanak uzten dion denbora librea bere pasioari eskaintzen dio: Slackline kirola praktikatzen du. Lasaitasun lerroa esan nahi du zehazki slackline hitzak, eta kontraesana dirudien arren, soka gaineko tentsioak lasaitasuna ematen dio gorputzari. Orain dela bost urte deskubritu zuen Eduk kirol modalitate hau, 23 urterekin. Soka gainean tente jarri eta pausotxo batzuk ematen hasi zen lehenengo, eta gaur egun sekulako akrobaziak egiten ditu. Txapelketaren batean eta slackline ikuskizunetan parte hartu izan du, azkenekoz, uztailean, Soraluzen. Bizipoza ematen dio kirol honek. Bideoa ikusteko: barren.eus



◆ Noiz eta nola hasi zinen slackline-a praktikatzen?

Valladoliden ikasten nengoela deskubritu nuen. IVEF ikastera joan nintzen Valladolidera eta eskalada egiten zuen lagun baten bitartez ezagutu nuen kirol hau. Parke batean geratuta zeudela esan zidan, eta probatzera joan nintzen. Lehenengo aldi hartan oso zaila iruditu zaitzaidan, jende gehienari bezala, baina interesa piztu zidan. Sei bat hilabete geroago, beste saiakera bat egin nuen lagun batekin Sallobenten, eta orduan soka gainean bospasei pauso ematea lortu nuen. Garai hortan, hain justu, *El desafío* filma ikusi nuen. Frantses batek dorre bikiak zeharkatzen ditu zinta baten gainean, eta pila bat gustatu zitzaidan. Benetako gertakari batean oinarritutako filma da, eta hori ikusi ostean, zinta erosi nuen, praktikatzen hasteko. Gero, Galiziara joan nintzen ikastera, eta han jarraitu nuen slackline-ari egurra ematen.

◆ Eskalada egiten zuen lagun batekin hasi zinela esan duzu, eta hain zuzen ere, eskalataileek deskubritu zuten kirol hau, ezta?

Bai, eskaladarako oso ondo etortzen da, oreka izugarri lantzen delako. Estatu Batuetan sortu zen kirol hau, Yosemitean, 80ko hamarkadan. Andy Lewis izan zen kirol honetan aitzindaria. Eskalataileek or-

“Oso perfektionista naiz eta kirol honek ematen dit beti hobetzen jarraitzeko aukera”

duak ematen zituzten aparkalekuetan eskalatu aurretik edo ondoren, eta denbora pasatzeko hasi ziren soka gainean oreka lantzen, baina kirol askotarako balio du oreka lantzeak, eta baita bizitzarako ere. Nik honi buruz egin nuen ikasketa amaierako lana, eta dituen onura guztiak jaso nituen. Oreka lantzeaz gain, burua lasaitzen laguntzen du eta artikulazioetako lesioak prebenitzeko ere balio du.

◆ Zein ezaugarri behar dira slackline-a praktikatzeko?

Motibazioa, indarra eta konstantzia behar dira. Ez du apartekorik eskatzen, nire ustez, baina kirol gogorra da. Zinta gainean 30 segundu trukoak egiten egotea eskubaloit partida bateko bost minutu izan daitezke. Indar handia behar da, eta orduak sartzea, beste kirol guztietan bezala. Ni behin baino gehiagotan egon izan naiz zortzi ordu jarraian entrenatzen. Kirol asko egin izan dut nik beti. Atletismoan, futboleko eta eskubaloian jokaturakoa naiz, eskalatzen ere ibili nintzen hiru urtez Valladoliden, eta beti dena ematen

duen horietakoa naiz. Mendira joaten ere oso gazte hasi nintzen, baina argi daukat hau dela nire kirola. Slackline jarduera deskubritu nuenean argi ikusi nuen hau betirako izango zela, eta ahal dudan bitartean honekin jarraituko dudala. Oso perfektionista naiz, eta kirol honek ematen dit beti hobetzen saiatzeko aukera.

◆ San Rokeko berdegunean ibiltzen zara asko. Zer dauka leku honek zuretzat?

Hau da nire tenplua. Hemen pasatzen ditut orduak eta orduak soka gainean, eta hemen lortu dut truko gehienak ateratzea. Hemen hasi nintzen, eta oso leku berezia da niretzat. Soka azpian koltxoiak jartzen ditut ariketa zailak egiteko: bestela, oso arriskutsua da. Leku lasaia da hau, eta slackline-a praktikatzeko oso leku egokia. Herrian bertan dago, eta jendeak ez dit inolako arazorik jartzen hemen entrenatzeko. Eskertzen dut jendearen jarrerera. Leku asko dira bereziak, eta kirol honek leku oso politak deskubritzeko aukera ematen du, beti naturarekin harremanetan, baina San Rokeko berdegune hau da niretzako bereziarena.

◆ Zertan datza slackline kirola?

Zinta gainean akrobaziak edo ariketak egitean datza. Nik egiten dudana trikline da. Zinta gainean trukoak egitean datza, eta hau da gehien praktikatzen

den modalitatea, baina slackline modalitate desberdinak daude: rodeoline-ean zinta U forman jartzen da eta hankekin ziburuaren mugimenduak egiten dira; Waterline-ean, berriz, ur gainean jartzen da zinta, gainetik ibiltzeko edo trukoak egiteko, longline-ean 50 metro luzerako zintak erabiltzen dira eta Highline-ean zinta lurretik 20 metroko altueran jartzen da. Sorraluzen egin zuten Highline modalitatearen erakustaldi bat erreka gainetik, eta han parte hartu nuen. Highline egiten nuen lehen aldia izan zen, eta zinta gainean zutik jartzea lortu nuen! Sekulakoa izan zen niretzat. Arnesarekin lotuta joaten gara horrelakoetan, eta eroriz gero, zintziliek geratzen gara. Slacklinean zinta zenbat eta altuago jarri eta zenbat eta luzeagoa izan, zailtasuna handiagoa da. Yogaslack ere egiten dute batzuek; zinta gainean meditatzean datza. Baina niri gehien zinta gainean akrobaziak eta trukoak egitea gustatzen zait. Bideo batean ikusi nuen jendeak jauzi mortalak egiten zituela eta hori lortzeko helburua jarri nion nire buruari. Bi urte pasa behar izan ditut, baina lortu dut mortalak egitea. Oso pozik nago lorpen horrekin. Oso garrantzitsua da pauso guztiak zaintzea, ondo entrenatzea eta burua lantzea. Ez da erraza. Nik pixkanaka lortu dut. Lehenengo bertikalean egiten nituen jauziak, gero eje transbertsalean hasi nintzen, horizontalean, eta azkenik lortu nuen jauzi mortala egitea.

♦ **Kirol minoritarioa da oraindik, baina gero eta leku gehiagotan ikusten dira horrelako zintak jendeak probatzeko. Iruditzen zaizu hasi dela zabaltzen?**

Oso poliki ari da zabaltzen. 2011n hasi zen kirol hau ezagutzera ematen eta materiala saltzen hasi ziren, baina ez zuten hartu sustatzaileek espero zuten indarra. Ni 2016an hasi nintzen. Bakarrik hasi nintzen hasieran, baina berehala batu zitzaidan fakultateko beste lagun bat. Ni baino gazteagoa zen. Nik 23 urte nituen, eta berak 18, eta horrek asko laguntzen du. Berehala konturatu nintzen slacklinerako ezaugarri guztiak betetzen zituela, eta bi urtez elkarrekin entrenatzen ibili ginen ia egunero, sei orduz. Ni baino





maila hobea lortu zuen berak, eta gaur egun txapelketetan ere lehiatzen da. Munduko bi txapelketatan Europako ordezkaria izan da. Ni berari laguntzera joan izan naiz, eta txapelketa eta erakustaldiren batean parte hartu izan dut, baina gauza gutxi. Elgoibarren ere egin ahalko litzateke erakustaldiren bat. Maala inguru toki egokia iruditzen zait, Sallobente erreka gainean. Lagunek esaten didate jota nagoela, eta agian ez zaie arrazoirik falta. Esaten didate buruan ez daukadala besterik!

♦ **Zuk nora iritsi nahiko zenuke slacklinean?**

Nire helburua ez da txapelketetan lehiatzea edo mailarik gorenera iristea. Ezagutzen ditut nire mugak eta badakit noraino iritsi ahal naizen. Beraz, nire buruari helburu lorgarriak jartzen dizkiot. Nire asmoa hobetzen saiatzea da. Badakit ez naizela honekin aberastuko, baina ez da hori nire asmoa. Hau nire pasioa da, honek ematen dit bizipoza eta ahal dudan bitartean praktikatzeko jarraitzea da nire helburua. Deskribatu ezin dudan sentimendu bat sortzen dit honek. Nire bizioa da.

♦ **Eskalada kirol olinpikoa da. Uste duzu noizbait slackline-a iritsiko dela olinpiar jokoz izatera?**

Aspaldi esan nion aitari kirol olinpikoa izango zela noizbait slackline-a, eta barre

“Zinta gainean gauzak ondo irteten zaizkidanean, bizitzan ere ondo irteten zaizkit”

egin zuen, baina ni konbentzituta nago. Seguru nago, slackline-a kirol olinpikoa izango dela hemendik gutxira. Skate-a ere sartu da, eta antzerako beste kirol batzuk ere onartu dituzte, breakdance, esaterako, eta hau ere iritsiko da.

♦ **23 urterekin hasi zinen zu honetan. Zein adin esango zenuke dela egokia honetan hasteko?**

Ni berandu hasi nintzen, eta ordurako nahiko kaskartuta nengoen fisikoki. Nire laguna 18 urterekin hasi zen, eta igartzen zen ni baino hobeto zegoela. Kirol guztietan bezala, hemen ere, zenbat eta lehenago hasi, hobe izango da.

♦ **Fisikoki igarri duzu onurarik slackline-ari esker?**

Slackline praktikatzeko hasi nintzeanean bi belaunak nituen ebakuntza egiteko moduan, eta honi esker sendatu zaizkit. Kirol honek muskuilu eta artikulazioak indartzen laguntzen du. Baina kontuz ibili behar da, eta ahal dela beti segurtasunez entrenatu. Kolpe asko hartutakoa naiz, baina zorionez, ez dut inoiz hezurrik hautsi. Onura asko

ematen ditu, baina aldi berean arrisku-tsua ere bada.

♦ **Hemendik aurrera, zer nahiko zenuke lortu?**

Ez dut uste oraindik nire onenera iritsi naizenik, eta hobetzen jarraitu nahiko nuke. Ez diot nire buruari mugarik jartzen, eta agertzen zaizkidan oztopoak gainditzen saiatuko naiz. Jendea animatu nahiko nuke probatzera, baina aholku bezala esango nieke ez jartzeko helburu handiegiak. Onena norberaren satisfaziorako praktikatzea da. Niri asko lagundu dit kirol honek. Zinta gainean gauzak ondo irteten zaizkidanean, bizitzan ere ondo irteten zaizkit. Lotura zuzena dauka kirol honek nire bizitzarekin.

♦ **IVEF ikasketak egin dituzu. Uste duzu slackline-a sartu ahalko litzatekeela eskoletako kirol programan?**

Gustatuko litzaidake. Udazken aldera Elgoibarrera bueltatzeko asmoa daukat, eta ahaleginduko naiz nire ikasketekin lotutako lanen bat aurkitzen. Ondo egongo litzateke eskolatan sartzeko kirol hau umeekin praktikatzeko, edo eskolaz kanpoko jarduera bezala ere planteatu ahalko litzateke. Motrizitatea eta oreka lantzeko oso baliagarria da. Kiroldegian prestatu ahalko litzateke gune bat hau praktikatzeko, eta uste dut gazteen artean izango lukeela arrakasta.

Dantzan egin diote azken agurra Abel Iriondo dantzariari

- AINARA ARGOITIA -



Bizikletan zebilela bihotzekoak emanda hil zen domekan Abel Iriondo Elorza (Elgoibar, 1966). Elgoibarko Izarran, Sebas Larrañaga irakasle zuela hasi zen dantzan, eta 1981ean, 15 urterekin, hasi zen helduekin, Haritz euskal dantzari taldean. Argia, Kezka, Kriskitin eta Aiko dantza taldeetan ere jardun zen, baina sekula ez zen eten Elgoibarko dantza taldera batzen zuen soka. "Dohai handiko" dantzaria izan da, "plaza-gizona", eta traturako, gizon "umila", "atsegina", "alaia" eta "gertukoa". Hala nabarmendu dute ezagutu dutenek.

Etxetik zetorkion kanturako, musikarako eta dantzarako zale-tasuna. Ume zela hasi zen txistua eta dantza ikasten eta 1981ean, 15 urte zituela, batu zen Haritzera. Han bat egin zuen taldean hasi berria zen Jon Lizarralderekin, ehunka dantza saiotan lagun izango zuenarekin. "Lagun handi bat galdu dut; dantzari handia joan zaigu", esan du Lizarralde. Elgoibarko San Bartolome eguneko soka-dantzan aurrez aurre dantzatu zuten Lizarralde eta Iriondok 18 urtez. "Ni aurrekulari eta bera, atzeskulari. Guretzat beti izan da berezia soka-dantza. 'Orain, bai! Parranda egiteko moduan gauazak!' esaten nion Abeli dantzan egin ostean. Batera ibili ginen Donostiako Argian ere Gipuzkoako dantza-ereduak ikasten, Iñaki Arregi, Jose Inazio Sarasua eta Mikel Pontestarekin", gogoratu du. 1987-1988 bitartean izan zen hori. Sasoi hartan soldadutza egiten ari zen Iriondo Donostian. Argiarekin entsegutan hasi eta *Zortziko* (1988) eta *Alakiketan* (1993) ikuskizunetan dantzatu zuen, bai eta geroago *Kondharian* (1997) eta *Pas de Basque* (2002) ikuskizunetan ere. "Teknika handiko dantzaria izan da; indartsua, azkarra eta zehatza. Dotorea. Haritzen, figura inportantea izan da. Urte askoan kapitain lanak egin zituen Errosarioko Amaren ezpata-dantzan ere, eta Gabonetako *Plazara dantzara* erromeriara ere beti etortzen zen. Alaia zen, kantari aparta eta esku onekoa. Luzaideko bolanteen dantzarako kaskak ere berak egin zizkigun".

Arrateko Amaren ezpata-dantza ere gogoko zuen. 2006an gonbidatu eraman zuten Arratera, Mikel Legorburu, Lourdes Odriozola eta Jon Lizarralderekin batera, eta gerora urtero saiatzen zen joaten. Aipagarria da Kezka dantza taldekoek domina bana eman ohi dietela ohorezko gonbidatu izaten direnei, bai eta hamar urtean dantza egiten dutenei ere, eta Abel Iriondo dela biak eskuratu dituen bakarra. "Dantzarako afizio itzela

izan du beti", nabarmendu du Oier Araolaza Kezka dantza taldeko kideak. 96-97 urteko kontua ekarri du akordura. Iparraldeko dantzen ikastaroa antolatu zuen Claude Iruretagoiena Maritzuli konpainiako dantza-maisuak Beskoitzen, eta zapatu goizetan izaten ziren eskolak. "Etxepen lan egin du Abelek, erreleboka, eta zapatu batzuetan gabaz beharra eginda joaten zen. Etxepe parean batzen genuen, bidean lo-kuluxka egiten zuen bazterrean arrimatuta eta irribarre handienarekin aritzen zen gero dantzan goiz osoan".

Plazan hazten denetakoa zen. "Erraz egiten zuen dantzan, gozatu egiten zuen. Jarrera aldetik ere, beti izan da gizon noblea, eskuzabala eta esker onekoa. Sekula ez da iskanbiletan sartu". Ezta giroa gaiztotzeko baldintzak izan direnetan ere. Tradizioz gizonenak ziren plazetan emakumeei lekua egitearen alde agertu zen esaterako, eta hor ere, Kriskitin dantza taldean zela, "lan handia egin zuela azpimarratu du Araolazak. Durangora ezkondu berrikan batu zen Kriskitinera, eta Durangoko ia dantza talde denak tradizioa aldatzearen kontrako zirenean, emakumeen parte-hartzea babestu zuen "inorekin enfrentamendurik izan barik". Durangaldeko ezpata-dantzari taldeen ekitaldi handia izan ohi da Merinaldeko Ezpata-dantzari eguna. Izurtzan ospatu zuten 2016an, eta estreinakoz, talde mixtoa atera zuen Kriskitinek. Hantxe zen Abel Iriondo ere.

Estimu handitan izan dute Durangoko Kriskitin dantza taldean, bai eta Aiko taldean ere. Hunkituta mintzatu da Sabin Birkandi Aiko taldearen sortzailea. "Aparteko gizona izan da. Dantzari fina eta dantzazale amorratua". Azkeneko hamarkadan dantzaren funtzioak aldatu egin direla esan du, eta gaur, dantzari askorentzat ere, dantza espektakulua dela, baina ez horrenbeste komunikatzeko eta harremantzeko modu bat. "Abel, baina, dantzari peto-petoa eta dantzazale amorratua izan da". Hitz onak baino ez dauzka hilberria den lagunarentzat. Hari buruz dio "erregistro askoko dantzaria" izan dela, "inprobisatzen zekiena", eta batez ere, "plaza bete egiten zuena". "Dantzan, transmititu egiten zuen. Grabilleta, artazi eta puntapio bakoitzean oroituko dugu". Testu osoa: **barren.eus**.

Deittu'idak txakurra, baiña ema'idak ogixa: Alegia, berdin zait zer gauza gaizto esaten duzun nigatik (zerbait txarra egin dut-eta), baina nirearekin irten naiz ni.

► GORKA ALONSO ETA IDOIA ORTEGA

Elgoibarko Udalak erraldoi eta buruhandien erakusketa antolatu du irailerako, eta iazko moduan, Aita Agirre kulturguneko sarreran jarriko dituzte figura guztiak. Erraldoiekin batera, Mari, Tartalo, Basajaun eta Basandere buruhandi berriak egongo dira batetik, eta baita azken 25 urteetan herriko umeen atzetik korrika ibili diren Mickey Mouse, Pinotxo, Donald ahatea eta ipotx zorionsua. Aitita, amama, sorgina eta pirata ere ez dira faltako. Horrez gain, baina, miniaturazko erraldoien bilduma bat jarriko dute ikusgai Kultur Etxeko erakusketa gelan. Hain zuzen ere, Gorka Alonso eta Idoia Ortegak osatutako bilduma. Irailaren 10etik 30era egongo dira zabalik bi erakusketak, lehenengoa Aita Agirre Kulturgunean eta bigarrena, Kultur Etxeko erakusketa gelan.

- AINHOA ANDONEGI -



“Urte eta erdian osatu dugu miniaturazko erraldoien bilduma”

◆ Noiz eta nola hasi zineten miniaturazko erraldoiak biltzen?

2019an hasi ginen. Beti gustatu izan zaigu erraldoi eta buruhandien konpartsak ikustea, eta herri askotan ibili izan gara konpartsen atzetik. 2018an ikusi genuen konpartsen topaketa desfilerik politena Irunen; izugarria izan zen. Asko gustatzen zaigu erraldoiak dantzan ikustea. Horrelako figurak ikusten hasi ginenean, erosteari ekin genion. Ez naiz oso ondo gogoratzen, baina uste dut Donostiako erraldoiak izan zirela erosi genituen lehenengoak. Dagoeneko 180 ditugu, eta ilusio handia egiten digu jendeari erakustea. Umeei asko gustatuko zaie erakusketa hau, eta jairik gabeko egoera honetan poztasun apur bat behar du jendeak.

◆ Non gordetzen dituzue figurak horiek guztiak?

Etxean ohe bat daukagu soberan, eta hantxe gainean kokatzen ditugu guztiak. Apalen batean ere egoten dira batzuk.

◆ Nongo erraldoiak dituzue?

Gipuzkoa, Bizkai eta Nafarroakoak dira gehienak. Iruña, Txantrea, Bergara, Bilbo, Donostia... Euskal Herriatik kanpokoak ere baditugu, Kataluniakoak. Kataluniarrak izan dira erosi ditugun azkenak. Desberdinak dira, oso politak.

◆ Non erosten dituzue miniaturak?

Orain arte beti dendetan erosi izan ditugu. Eibarren, Az-

peitian, Bilbon, Donostian eta Iruñean ezagutzen ditugu horrelako figurak saltzen dituzten dendak eta tarteka joaten gara erostera. Internetez ere erosi daitezke, eta aukera hori ere baliatuko dut aurrerantzean. Aragoiko erraldoiak ere badaude, baina horiek ez dituzte hemen saltzen eta Zaragozara ez gara joango, beraz, Internetez eskatu beharko ditugu. Normalean ez ditugu figurak bakarka erosten. Behin dendara joanda, figura bakarra erosteak ez du merezi. Diru apur bat aurrezten dugunean herri bakoitzeko erraldoien taldea osorik erosten dugu.

◆ Aurrerantzean figura gehiago eskuratzen jarraitzeko asmorik ba al duzue?

Gabonak arteko epea jarri dugu, bestela ez dugu sekula burkatuko. Urte eta erdian osatu dugu orain arteko bilduma, baina honek ez dauka amaierarik. Gero eta herri gehiagotako erraldoiak ateratzen dituzte, eta epe muga bat jarri ezean ez genuke inoiz amaituko. Elgoibarko erraldoien miniaturak ere eskatuta daukela esan digute Kultura Sailean, eta horiek erostea gustatuko litzaziguke. Gabonetan erosiko ditugu ordura arteko berrikuntzak, eta kitto. Kalkulatu izan dugu noizbait bildumaren balioa, eta bost mila eurotik gertu ibiliko da.

Irailaren 18an egingo dute Gararock musika jaialdia Mendaron eta hiru izango dira talde gonbidatuak: Arima, Amorante eta Audience

Pandemiak etena egitera behartu zituen iaz, eta arantza hori kentzeko eta batez ere kulturari behar duen bultzada emateko eta Mendaroko kultur eskaintza aberasteko, *Begiekin entzutekoak* zikloa antolatu zuten Gararock taldeak eta Udalak apirilean. Lau kontzertu izan ziren guztira, eta izandako harrerarekin oso gustura gelditu ziren antolatzaileak. Aurten, eta osasun-egoerak hobera egin duela ikusita, Gararock jaialdia egin, egingo dela jakinarazi dute, eta eguna, ordua eta lekua ere zehaztu dituzte: irailaren 18an (zapatua), Garagartzan, 19:00etatik aurrera [eguraldi ona bada, plazan eta bestela San Agustinen. Aforoa zainduko dute, baina ez da sarrerarik beharko eta jan-edana egongo da]. Beste urteetakoekin alderatuta, xumeagoa izango da jaialdia gonbidatu kopuruari dagokionez, baina hala ere, kalitatea eta xarma ziurtatuta daudela aurreratu du Ina Iriondo musikari eta Gararock taldeko kideetako batek. Hiru dira aurtengo gonbidatuak: Arima rock talde bizkaitarra, Amorante (Iban Urizar elgoibartarraren bakarkako proiektua) eta Audience talde bizkaitarra. Ibilbide luzekoak dira hirurak, eza-gunak gure musika eszenan. Audiencen kasuan aipatzekoa da disko berria kaleratu

zuela ekainean, *Tolesturak* izenekoa, eta hor kantu bat eskaini ziola Joseba Olazabal mendaroarrak hasitako borrokari. Olazabalek denbora darama A8 autobidean zarataren kontrako panelak jar ditzatela eskatzen, trafiko burrunba jasangaitza zaielako inguru horretan bizi direnetako askori. Ezaguna egin da Olazabal bera, bai eta haren borroka ere. Hari eskainitako kantuari *Mendaro Fiddler* izena eman diote (Mendaroko biolin-jolea).

Aitor Etxeberriak egindako kartela

Aitor Etxeberria margolari eta eskulturagile mendaroarrak egin du aurtengo kartela eta gaur, barikua, aurkeztuko dute Herriko Enparantzan, jaialdirako atera dituzten kamiseta eta gainerako materialekin batera. 18:30ak aldera jarriko dute mahaia plazan Gararock taldekoek. Laguntzaileak ere behar dituzte irailaren 18koa antolatzeko eta prest daudenei eurekin harremanetan jartzeko eskatu diete.



Arima



Amorante



Audience




'Txiki txiki txiki eguna' kantua sortu du Oier Gurrutzagak, Txiki Egunaren omenez

Oier Gurrutzaga (Dido Mod) musikari elgoibartarrak *Txiki txiki txiki eguna* kantua konposatu du, sanbartolomeetako Txiki Egunaren karietara, eta abuztuaren 25ean, Txiki Eguna behar lukeenean, aurkeztu zuen Tantaka tabernan. Bi urtez ez da jairik izan Elgoibarren, ezta beraz Txiki Egunik ere, eta hutsune hori bete nahi izan du Gurrutzagak. Hasieran sare sozialen bidez zabaltekoa zuen kantua, baina azkenean, tabernan aurkeztu zuen. Youtubeko Dido Mod kanalean 2.400 ikustaldi baino gehiago ditu dagoeneko.



Iazko etenaren ostean, aurten, kalera irten da berriro Mauxitxa Txaranga irailaren 1ean

COVID 19-a dela eta, bertan behera utzi zituzten iaz San Bartolome jaiak, eta horrekin batera, Mauxitxa Txarangak irailaren 1ean jo ohi duen *Lanaren diana* ere ez zuten egin. Aurten ere, ez da jairik izan, baina Mauxitxa Txaranga urteetako tradizioari eutsi dio, eta irailaren 1ean kalera irten ziren musikariak, jendea lanera alaiago has-teko. 7:00etan irten ziren, ilunpean, eta tximisten mehatxupean, baina ateri irau-zuen eguraldiak kalejirak irauan artean. Egungo musikariekin batera, urteetan Mauxitxako kide izandako musikariak ere gonbidatu zituzten asteazkeneko kalejir-
an parte hartzera. Inon iragarri gabe irten ziren kalera jende pilaketak sahies-
teko, baina hala ere, batu zitzaizkien ja-
rraitzaile batzuk. *Lanaren Diana* 1976an jo zuen estreinakoz Mauxitxak. Jaime Arrese orduko alkateak afari bat agindu zien txaranga lagunei, irailaren 1eko goizean irtetzen baziren. Esan eta egin. Orduetik ohitura bilakatu da, eta elgoibartar asko Mauxitxarekin itzultzen dira lanera abuztuko oporren ostean. Bideoa ikusteko: barren.eus



'Udako zirkua' antolatu dute ostegunerako

Kultura Eguzkitan egitasmoaren barruan, *Udako zirkua* ikuskizuna eka-
rriko du irailaren 9an Trotamundos taldeak Elgoibarrera. Umorea eta absurdoa dira ikuskizun honen haria. Barrez, umorez era arriskuz jositako ikuskizuna izango da, akrobazia, sua eta slapstick-arekin uztartuta. 19:00etan izango da emanaldia, Kalegoen plazan (euria egiten badu, Maalako parkean).



Euskara ikasteko matrikulazio-epea, zabalik

Elgoibarko euskaltegietan hasi dute ikasturtea, eta dagoeneko zabaldu dute matrikulazio-epea. Interesatuek irailaren 24rako eman beharko dute izena.

- Udal Euskaltegia: Aita Agirre kulturgunea. 943 742 731 / udaleuskaltegia.elgoibar@debabe.eus
- AEK Euskaltegia: Gabriel Krutzelaegi 10. 607 601 423 / elgoibar@aek.eus

Dirulaguntzei eta bekei buruzko informazioa euskaltegietan edo Udaleko Euskara Sailean eskatu daiteke (943 744366 / euskara@elgoibar.eus).


Txitxibilaldia taldekoak Mulleres gailurrera bueltatu dira

Lourdes Zubiaurre *Txitxi* lagunaren omezez hartu zuen Txitxibilaldiak izena. Mendizale talde honek 2006ko urriaren 26an, baina ordurako makina bat gailur zapalduak zituzten. Mendian ibiltzea gustuko zuten, eta emakumeek ere aisialdirako eta kirolerako eskubidea zutela aldarrikatzeko elkartu ziren, kirola gizonen curriculumeko kontua baino ez zenean, duela 42 bat urte. Geroztik, makina bat irteera egin dituzte, eta abuztuan, Aragoiko Piriniotan izan dira zeharkaldia egiten. Sacroix (2.668 m), Salvaguardia (2.736 m) eta Tuc de Mulleres gailurrak (3.010 m) zapaldu dituzte bidean. 1999. urtean ere igo zuten azkeneko hori hamar taldekidek (goiko argazkian), eta talde hartako sei berriro elkartu dira aurten tontorrean. Guztira, 11 izan dira, baina, taldean, eta tartean gidari berezi bi ere izan dituzte. Jose Inazio Izagirre aspaldiko laguna eta Imma Mugertza geologo elgoibartarra, zeinak haitzen eta glaziarren gaineko azalpenak eman dizkien, bertatik bertara. "Luxu bat izan da", aipatu du Izaskun Estibaritz taldekideak.



Mont Blancoko ultra traila utzi behar izan zuen Maite Maiorak, urdaileko minak estu hartuta

Maite Maiorarentzat denboraldiko erronka garrantzitsua zen Mont Blancoko ultra trailan lehiatzea, baina lasterketa utzi behar izan zuen 88. kilometroan, "urdaileko minak estu hartuta". Munduko mendi lasterketa luzeetan ospetsuena den UTMB probak 170 kilometroko ibilbidea eta 9.600 metroko desnibel positiboa ditu, denak Mendi Zuriaren inguruan. Maiorak hirugarren postua lortu zuen proba honetan parte hartu zuen aurrenekoaldian, 2019an. Sasoi betearekin heldu zen aurten ere, munduko txapeldun izan ostean, baina ezin izan zuen proba bukatu. "Bertonetik gertu (88.kilometroa) lasterketa laga behar izan dut, urdailean izaten ari nintzen ziztadek beldurtuta (eta minez). Aurreikusitako moduan zihoan dena; are, 2019ko egin dako denborak errefentziazat hartuz gero, hobeto nindoan, baina kilometro asko falta ziren zerbait larriagoa izatera arriskatzeko. Hurrengo batean hobeto (edo ez)", azaldu zuen. Gogor entrenatua zen lasterketa honetarako eta aldizkari honi ere aitortua zion ilusio berezia egiten zion lasterketa zela. "Summuna litzateke UTMBa irabaztea. Nik ez dakit irabazten duenak zergatik jarraitzen duen korrika! (kar-kar). Gehiegia izango litzateke irabaztea, baina garbi dago ez dudala helburutzat, UTMBa ezin delako joan irabaziko duzulakoan. Irabazteko dena ematera, bai, baina irabaziko duzulakoan ez". Courtney Dauwalter estatubatuarra gailendu zen emakumezkoetan, eta gizonetzkoetan, Francois D'Haene, Salomon taldeko frantziarra.



Harrobiarekin egiten duten lana bistaratuko dute Gojko Vucinic eskubaloi txapelketan

Gojko Vucinic Elgoibar Herria izena izango du Sanlok kadete mailako eskubaloi taldeentzako antolatzen duen txapelketaren hirugarren edizioak. Txapelketa honen sustatzaileetako bat izan zen Vucinic bera, eta, horregatik jarri diote bere izena txapelketari. Aurreko urteetan bezala, Gipuzkoa, Bizkai, Nafarroa eta Kantabriako eskubaloi taldeetako eskubaloi jokalariek gazteak lehiatuko dira irailaren 3tik 5era Elgoibarren jokatu den txapelketan. Aurtengo ekitaldia berezia izango da Sanlo kirol taldeko kideentzat, eta halaxe adierazi zuten txapelketaren aurkezpenean. "Aurtengoa berezia da guztiarentzat, ez baitugu Gojko Vucinic txapelketako aholkularietako bat gure artean izango, beti harrobia landu eta eskubaloia sustatzeko lanean aritzen zena". Hain zuzen horixe da txapelketa hau antolatzearen helburua, jokalariek gaztetxoak lehiatzea eskubaloi taldeetan egiten ari diren harrobiko lana ezagutzera emateko. Aurten bederatzi talde lehiatuko dira: Olaizaga kiroldegiko kantxan, neskak, eta IMHko kiroldegian, mutilak.



Asier Etxeberria gailendu zen Koldo Lizarralde gogoan eduki zuten Etxaniz Memorialean



Asier Etxeberria (1998, Eguesibar) txirrindulari nafarrak irabazi zuen Etxaniz memorialeko txirrindulari lasterketaren 74. ekitaldia. Euskadiko Txirrindularitza Federazioak antolatzen duen Helduz Torneoko hirugarren proba puntuagarria izan zen Elgoibarren jokaturikoa. Asier Etxeberria Euskaltel-Euskadi taldearen harrobia den Laboral Kutxa taldeko txirrindularia profesionalen lehiatzailea izan zen, abuztu erdialdean, Tour du Limousin lasterketan. Eta igarri zen, pedal kolpe arina ekarri baitzuen Frantziatik Elgoibarrera. Bera izan zen indartsuena estreinako Idortorbe gainean amaitu zuen Etxaniz Memorialean. Bost txirrindulari osatutako taldetxo irabazlearengandik 18 segundora ailegatu zen Idortorbeko helmugara, horien artean etxeko txirrindularia, Imanol Alvarez (Eiser-Hirumet) elgoibartarra. Tamalez, gainerako iheskideek aurrea hartu zioten taldetxokoek jokatu zuten esprintean. Unai Esparza Garin (Lizarte) sailkatu zen bigarren postuan eta Xabier Isasa Larrañaga sailkatu zen hirugarren postuan. Lasterketari irteera eman aurretik, 2019ko irailean hil zen Koldo Lizarralderi omenaldia egin zioten Gure Bide elkarteek eta Elgoibarko Udaleko ordezkariak, Etxaniz Memorialearen antolatzaile aktiboentako bat izan baitzen urte askoan.



Ioseba Arrizabalagari omenaldia eginda amaitu ziren astelehenean Kintopeko idi-probak

Ioseba Arrizabalaga Iriarte zenaren omenez jokatu dituzte aurten Elgoibarko Kintopeko idi-probak. Iriarte izan zen Sigman probalekua eraiki izanaren sustatzaile nagusienetarikoa eta baita kintopeko txapelketak martxan jartzeko arduradunetako bat ere. Txapelketaren zazpigarren edizioa izan den honetan, hamar idi-pare lehiatu dira hiru egunetan, abuztuaren 27an, 28an eta 30ean. Sigmak probalekuan giro "polita" egon zela jakinarazi dute txapelketaren antolatzaileek eta ikusleek ondo erantzun zutela. Elgoibarko proba Saizar txapelketarako puntuagarria izan da, eta Bizkaitik etorritako idi pareek osatu zuten podiuma. Lemoizko Txinloren idi pareak gailendu zen, 57 plazako marka eginda. Gatikako La Cruzen idi pareak egin zuen bigarren (56 plaza, 2 zinta eta 1,84 metro), eta Laukizko Garagartzaren idiek (55 plaza eta 4.25) egin zuten hirugarren. Sari banaketa ekitaldian ere gogoan eduki zuten Ioseba Arrizabalaga eta Sigma probaleku elkarteko eta Gipuzkoako probazaleak taldeko ordezkariak lora sorta eta orogirria eman zieten senideei.



Reala gailendu zen Elgoibar Hiria txapelketan

Club Deportivo Elgoibarrek antolatuta, Elgoibar Herria Futbol Txapelketa jokatu zuten abuztuaren 28an, Mintxetan. Hiruko txapelketa formatuan lehiatu ziren hiru talde: Haundi, Reala eta Osasuna. Hori bai, Osasunak eta Realak ohorezko jubenil mailako taldeak ekarri zituzten Mintxetara. 45 minutuko partidak jokatu zituzten. Lehenengoan 2-1 irabazi zion Haundik Osasunari. Realak eta Osasunak bana berdindu zuten eta hirugarren partida erabakigarrian 0-3 irabazi zion Realak Haundiri, eta hala, donostiarrek irabazi zuten txapelketa. C.D. Elgoibarreko hainbat taldek martitzenean hasi zituzten entrenamenduak eta Haundik lagunarteko partida bat ere jokatu zuten eguaztenean, Uda taldearen aurka, Ibarren. Egun berean, nesken taldeak Usurbilen aurka jokatu zuten Mintxetan.



Juniorren txirrindulari lasterketa, irailaren 18an

Junior mailako txirrindularientzako lasterketa antolatu du Elgoibarko Lagun Taldeak irailaren 18rako. Gainera, taldeko hiru txirrindulari lehiatuko dira proban: Jokin Amorrosta, Eneko Ortega eta Aritz Esnaola. Azken biak kadete mailan diharduten arren, nagusiagoekin lehiatuko dira. Beñat Fernandezek ere badu parte hartzeko gogoak, baina eskumuturrean min hartu zuen joan den abuztuaren 23an, entrenatzen ari zela erorikoa izanda eta ikusteko dago garaiz osatuko den. Ibilbidean zehar dauden gurutzebideak ohartarazteko jendea behar dute antolatzaileek, eta prest daudenei honako helbidera idazteko eskatu diete: elt_txe@hotmail.com.



Abel Iriondo Elorza

2021eko abuztuaren 29an hil zen, 55 urte zituela.

***Maitasunez ta umorez
taldea jantziz kolorez,
dantzan bezala bizitzan ere
hain pauso dotorez.
Gaur gauden arren dolorez
oroitzen haugu ohorez
hire begien argia gure
barrenean gordez.***



Peli Uriguen Aranburu

"Etxeiña"

2021eko abuztuaren 26an hil zen, 85 urte zituela.



***Etxepeko lankide eta bazkideok
ez zaitugu ahaztuko.***



ETXEPE Lan bereziak
Grandes
mecanizados

Abel Iriondo Elorza

2021eko abuztuaren 29an hil zen, 55 urte zituela.



***Etxepeko lankide eta bazkideok
ez zaitugu ahaztuko.***



ETXEPE Lan bereziak
Grandes
mecanizados



Abel Iriondo Elorza

2021eko abuztuaren 29an hil zen, 55 urte zituela.

Betirako, gure bihotzetan.



ELGOIBARKO UDALAREN
TXISTULARI TALDEA



Maria Jose Ribate Riaño

2021eko uztailaren 31n hil zen,
Gernika-Lumon, 54 urte zituela.

Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Miguel Fernandez Alvarez

2021eko abuztuaren 9an hil zen, 87 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Jose Luis Errasti Gabilondo

2021eko abuztuaren 12an hil zen, 91 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Maritxu Urain Arakistain

"Txarriduna"

2021ko abuztuaren 23an hil zen, 83 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



LANA.....
Eskaerak

Lana behar dut. Adinekoak zaintzen jardun naiz urte askoan eta esperientzia badut. Etxeko langile moduan aritzeko ere prest nago. ☎ 603 252 536

Adinekoak zaintzeko prest nago, astebarruan zein asteburuetan. Etxeko langile aritzeko ere prest. ☎ 643 584 198

Adinekoak edo gaixorik dauden pertsonak zaintzeko prest nago. Euskalduna naiz. ☎ 617 571 210

Eskaintzak

Jatetxe batek sukaldea garbitzeko langilea behar du.

☎ 659 539 861


Goizetan 5 urteko umea ikastolara eramateko pertsona behar da.

☎ 629 229 706



Maria Luisa Urrutia Cendoya

2021eko abuztuaren 19an hil zen, 97 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Edurne Larreategui Oruna

2021eko abuztuaren 15ean hil zen, 91 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Finanzas
 Euzkoako Finantza Administrazioetako Erakunde Koordinatzailea



ROSA Ma PINTADO

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Gure komunitatean obra handi bat egin nahi dugu. Horretarako aldordioak jarri beharko ditugu, eta jakina, arrisku egoera batzuk ere sor daitezke langileentzat. Jakin nahiko nuke zer nolako baldintzak betetzea exijitu behar diogun kontratistari, ez dezan gero hark edo beste inork komunitatea egin sor daitezkeen arriskuen erantzule.

Nire iritziz, bizilagunak ez daude behartuta inolako dokumenturik eskatzera eta ez dute zertan lan istripuen prebentzioaren alorrean gerta daitezkeen ezbeharren erantzukizunik hartu behar. Izan ere, erantzule bakarra obra egiteko kontratatutako enpresa da. Lan istripuren bat gertatuz gero, bizilagunen komunitatea ez da ezeren erantzule izango. Berdin dio kontratatutako enpresak lanerako baldintzak bete ez baditu edoeta istripuen prebentziorako planik ez badu.

OHARRA: Bizilagunen komunitateak enpresarekin edo enpresa-ugazabarekin dauka lotura, baina ez enpresa horren agindutara lanean ari diren langileekin. Teknikoki ez dago subkontratazio harremanik kontratatutako enpresarentzat lanean ari diren langile horiekin.



AHOLKULARI KOLABORATZAILEA
 San Bartolome, 2



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENEKO bulegora, barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo 688 634 044 bidalita.



Zorionak, **Inge**, abuztuaren 29an 3 urte bete zenituelako! Muxu erraldoia denon partez, maillia!



Zorionak, **Nikole**, irailaren 8an 3 urte beteko dituzulako. Asko maite zaitugu! Muxu potolo bat!



Zorionak, **bikote!** Iritsi da zuen eguna ospatzeko unea! Ondo-ondo pasa dezazuela opa dizuegu. Etxeko guztion partez.

Erretratu bakarrek agurra: 4'50€
Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK
Erretratu bakarrek agurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€
Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

Argazkiak eguazten eguerdia (12:00etarako) baino lehen ekarri behar dira BARRENEKO bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.







- Zetazko Jacquard biskosa
- 300 gr Zeta
- 300 gr Lihoa
- Latex Naturala Comfort
- 1000 Microcoils 3D Spacer
- Cool Spring 900 suspentsioa
- 5 atseden gune
- 1000 Microcoils 3D Spacer
- Latex Naturala Comfort
- 300 gr Mohair Artile
- 300gr zeta
- Zetazko Jacquard biskosa

Proba ezazu koltxoi natural batean lo egitea zer den eta bizi ezazu esperientzia lasaigarri bat. Zatoz probatzera gure dendara!

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com

MILA ESKER

abuztuan egin diguzuen harreragatik!



Santa Ana kalea,
10 behea

943 575 278

GORBEA
Jatetxea

Gogoratu hemendik aurrera eguneko menua izango dugula astelehenetik ostiralera.
Zuen zain izango garai!



Jarri ezazu zure publizitatea BARREN astekarian edo www.barren.eus webgunean

943 743 704
688 769 657

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

BARREN Aita Agirre Kulturunea, 3. 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR

EXPRESS ESKAINTZAK!

BOSCH WAU28S42ES ARROPA GARBIGAILUA

549 €



A
T
G

C

- Garbigarriaren eta leungarriaren dosifikatzailea duena.
 - 30 minutuko programa azkarra.
 - 8 kg-ko karga. ● 1400 R.P.M.



MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte

3 BARIKUA

16:30-20:10 Odol ateratzeak Elgoibarren, Jubilatuen Egoitzan. Ordua hartu behar da: 623 328 408

6 ASTELEHENA

16:30 Ludotekaren irekiera.

8 EGUAZTENA

16:30 eta **18:00** Ate irekiak: 'Kata-mixarren basoa'. Mokoroa baserri aur-reko bidegurutzean batuko dira. Interesa duten guztiek parte hartu dezaketa baina izena eman behar da: aisia@elgoibarkoizarra.eus.

17:00 Gaztelekuaren irekiera.

9 EGUENA

19:00 'Trotamundos' zirkua. Kalegoen plazan. (Euria ari badu, Maalan).

10 BARIKUA

18:00 Erakusketa: 'Erraldoi eta buruhandiak'. Aita Agirre kulturgunean.

18:30 Erakusketa: 'Miniaturazko erraldoiak'. Kultur Etxeko erakusketa gelan. Hilaren 30era arte, astelehenetik zapa-tura.

Uztailean eta abuztuan hildakoak

| | | |
|---|---|--|
| <ul style="list-style-type: none"> Juan Mugertza Garagartza 80 urte, uztailak 2 Maria Luisa Mugertza San Martin 95 urte, uztailak 6 Jacinto Sanz Urrutia 81 urte, uztailak 12 Anselma Morales Bernal 84 urte, uztailak 14 Ramon Ezenarro Arriaga 94 urte, uztailak 19 Eusebia Lizundia Kaltzakorta 92 urte, uztailak 19 | <ul style="list-style-type: none"> Isabel Castilla Nieto 78 urte, uztailak 24 Maria Etxabe Etxaniz 99 urte, abuztuak 5 Vidal Sanchez Jimenez 85 urte, abuztuak 9 Jose Luis Errasti Gabilondo 91 urte, abuztuak 12 Jose Luis Ansola Egia 88 urte, abuztuak 12 Maria Pilar Agirrezabal Larrañaga 90 urte, abuztuak 14 | <ul style="list-style-type: none"> Edurne Larreategi Oruna 91 urte, abuztuak 15 Enrike Loiola Idiakez 72 urte, abuztuak 18 Maria Luisa Urrutia Cendoya 97 urte, abuztuak 19 Maritxu Urain Arakistain 83 urte, abuztuak 23 Angel Villena Monsalve 83 urte, abuztuak 23 Juan Antonio Gomez Herrero 83 urte, abuztuak 29 Abel Iriondo Elorza 55 urte, abuztuak 29 |
|---|---|--|

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

Egunez: 09:00-22:00

Iluntzean: 20:00-22:00

Larunbatak: 9:00-14:00 (*)

| 3 BARIKUA | 4 ZAPATUA | 5 DOMEKA | 6 ASTELEHENA | 7 MARTITZENA | 8 EGUAZTENA | 9 EGUENA | 10 BARIKUA |
|-----------------------------------|---------------------------------|---------------------------------|-----------------------------|-----------------------------------|-----------------------------|-----------------------------|----------------------------|
| Egunez *Oruesagasti | Egunez Barrenetxea | Egunez Barrenetxea | Egunez *Ibañez | Egunez Garitaonandia | Egunez Arriola | Egunez *Fernandez | Egunez Yudego |
| Iluntzean Garitaonandia | Iluntzean Barrenetxea | Iluntzean Barrenetxea | Iluntzean Arriola | Iluntzean Garitaonandia | Iluntzean Arriola | Iluntzean Yudego | Iluntzean Yudego |

*** Fernandez:**
Herriko Enparantza, 4
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

*** Ibañez:**
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

*** Oruesagasti:**
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

Urte guztian, gauzez: 22:00-09:00
Arantzazu Izpizua, Ibarkurutze, 7 (Eibar)
943 201 912

Jose Luis Ansola Eguia

2021eko abuztuaren 12an hil zen, 88 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



***Zu gure eredu
zu gure izar
ez zaitugu sekula ahaztuko
amama, Pilar.***

Etxekoak



Maria Pilar Agirrezabal Larrañaga

2021eko abuztuaren 14an hil zen, 90 urte zituela.



Enrike Loiola Idiakez

2021eko abuztuaren 18an hil zen, 72 urte zituela.



***Gure oroimenean bizi zaren artean,
betiko izango zara gure bihotzetan.***

Zazpi kuadrilla



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA



Hizkuntza Eskola Ofizialak
Escuelas Oficiales de Idiomas

Eibarko Hizkuntza Eskola



MATRIKULAZIO
OFIZIALA:

Irailaren

1etik 28ra

Otaola, 29 (Jaizkibel eraikina)

DEUTSCH ENGLISH EUSKARA FRANÇAIS



IKASTARO

ERDIPRESENTZIALAK

hizkuntza guztietan

– eskolan eta on line (Moodle plataforma) –

Arrasaten eta Azkoitian

GELA

DESPLAZATUAK

ere badauzkagu



***14 urtetik gora:** *Frantsesa eta Alemana* (eskolan Ingelesa atzerriko lehen hizkuntza bada).
16tik gora: Edozein hizkuntza.

14 urtetik gora*

Matrikula on-line egin beharko da ondorengo web orrian:

www.eoieibarheo.hezkuntza.net

IKASGUNEA plataformaren bitartez

Ikasturte osoaren prezioa: **72,36 euro**

